Plantearse esas cuestiones acarrea hoy un cierto descrédito... Sin embargo están apareciendo los problemas de no hacerse esas preguntas ó de no orientar debidamente el desarrollo hacia lo humano y de todos los humanos.

EI para qué tiene mucha importancia. Los valores han de impregnarlo todo. Hoy la técnica puede desarrollar lo mismo una bomba atómica que una vacuna que salva muchas vidas. Qué se prima. ¿Hacia dónde se orienta el progreso? Es vital trabajar en esa línea. Cuando la tecnología se separa de la ética puede llevarnos al desastre. (Recordar qué pasó con la revolución física y la bomba atómica ó qué puede pasar con el mundo de la clonación humana u otros caminos de la revolución biológica Bioética)

La educación se puede también enfocar hacia un lado u otro. Educar para una cultura de paz ó de violencia. Educar en valores como el bien común (pago impuestos por ejemplo, conservación espacios comunes...) o en competitividad e individualismo.

Los bienes tienen también un límite (Informe Lugano). Problemas ecológicos. La naturaleza es limitada.

Están apareciendo problemas que no se saben cómo afrontar (jóvenes que asesinan sin motivo aparente y con crueldad a sus propias compañeras ó compañeros, consumos muy problemáticos, brotes de racismo y xenofobia, patologías nuevas...)

Las universidades dicen "hay que preparar lo que demanda el mercado". ¿No hay otros parámetros?. Parece un error no plantearse una formación en humanidades. Superar ese sometimiento a la economía. No se pueden someter todas las cuestiones humanas y sociales a los imperativos del mercado, del crecimiento, de la competitividad.

Hay que rescatar la ética para salvaguardar la dignidad y el valor de lo humano, someter todas las cosas a orientaciones éticas. Defender los derechos humanos. Y las conquistas sociales. La democracia auténtica y una política que dirija la economía hacia fines más humanos. Recuperar la centralidad de la persona.

También es un desafío para las religiones. Asumir el progreso científico, pero no desgajar la razón científica técnica de lo humano. Los avances científico técnicos son propiedad de todos y no pueden ser excluyentes. Son una parte de lo humano. Tratar de humanizar todas las relaciones. Orientar el desarrollo hacia toda la humanidad. Conciliar la razón científico técnica con la antropológica y ética y religiosa.

Se comparte menos. La Fe nos debería inducir a compartir.

EI ecumenismo superador de visiones fundamentalistas. La orientación hacia los pobres de la tierra como opción preferente de la Iglesia.

Y desde luego defendiendo y dando ejemplo del valor absoluto de la persona, de la opción por la solidaridad y trabajo por la igualdad, de la defensa de los más débiles, de la superación de la visión dual aún existente, de búsqueda de sentido, de valoración de la esta sociedad, de sus aspectos positivos sin querer organizarlo todo (vida civil, política, social,...).

GLOBALIZAZIOA

Asko entzun eta irakurri dugu "globalizazioa" hitz honen inguruan. Globalizazioa ona ala txarra da?

Ekonomiari buruzko globalizazioa sistema kapitalisten batasun mundiala da. Sistema horren barruan bizi gara eta ondorenak denok sufritzen ditugu. Kapitalismoak eragina, etorkinak datozkigu, bidaltzen dituzten herrietara eta kapitalistek etorkinak erabiliz, diruari etekin handiena ateratzen dio...

Barruan, herrian berriz, lan murrizketak, kontratu zaborrak, enpresa txikien desagertzea, langile kopuruak gutxitzea, e.a. ETTek kontratu zaborrak eginaz.

SORTU BERRI DEN PLATAFORMA "ELKARTZEN"

Gizarte eskubideen aldeko defentsa da oinarri. Gizarte eskubideen inguruan arlo izugarri zabala da, baina, hiru zutabe ditu: lan eskubidea, lan banaketa eta lan duinaren beharra barne. Erreferentzia nagusizat hartzen dugu: soldata sozialaren eskaera ezarri eta denentzako etxe bizitzak.

Azken urteotan lanpostuak sortu dira baina sektore batzuek hortik kanpo geratu dira. Sortu den enplegua oso eskasa da. Sektore baztertu horiek lan merkatuan sartzen direnean, soldata txikiagoak eta lan baldintza txarrak, ordu gehiegi eta lan bereziak dituzte. Batzuek kontratua bukatu baino lehen kaleratzen dituzte; enpresak izena aldatu eta beste kontratu berriak egiten dituzte. Baldintza hauetan gazteak, etxe bizitza izateko eskubidea, zapaldu dago (soldata fixorik ez dutelako).

Pobrezia eta bazterketa soziala areagotzen ari den bitartean, euskal gizartearen elementu berriak gehitzen ari dira, etorkinen etorrera esaterako. Mundua txiki gelditu da. Globalizazioari esker berdin ezagutzen dugu, aldamenekoa eta Serbian dagoen miseria, ikusten dugu ez gaudela bakarrik. Mundu berri honi irekita egon behar dugu.

KRISTAU IKUSPEGITIK

NOLA IKUSTEN DITUGU GUK, KRISTAU BEZALA ETORKINAK ?

Lana agindu zaie eta guregana datoz.

Eskubide guztiak dituzte pertsona bezala eta ez "eskuak" bezala tratatzeko.

Nola begiratzen diegu ?

Izenez deitzen al diegu ?

Eskubideak eskubide diren heinean, gure ohituak kultura eta hizkuntza, integratzeko unean kontuan izan beharko ditugu.

Kristau fedetik gure baloraketa egin behar dugu, eta ekintzetan, inguruan ditugunari lagundu. Nola? Agian "PLATAFORMA ELKARTZEN" eta sortzen dituen ekintzetan parte hartuz. Adibidez, jan leku komedore berriak sortu beharko lirake, tailerrak, lan heziketa emateko edo daudenak zabaldu, elkar lana egiteko eta (gure kultura barruan sartzeko).

"BESTEA" ikusteko "BEGIRATZEKO" eta laguntzeko prest egon behar dugu, adi, begiak zabalik beren ezinetan laguntzeko.

(DONOSTIAKO GROS TALDEAK EGINDAKO LANA)

GLOBALIZACION

(Trabajo que corresponde al apartado b: "globalización, pobreza, exclusión y vocación a la fraternidad", realizado por el grupo de Donostia - Gros)

Mucho hemos oído y leído sobre la GLOBALIZACION, pero hay que preguntarse, ¿es buena o mala?

Estamos dentro del sistema capitalista unitario y mundial y todos estamos sufriendo las consecuencias. Una de ellas es la llegada de los INMIGRANTES, de los cuales el sistema capitalista usa su mano de obra para sacar beneficios.

Al mismo tiempo el sistema, usa como castigo la disminución de trabajo, el paro de forma que están disminuyendo los contratos, una prueba de ello tenemos, la táctica de los contratos basura de las ETT.

LA PROMOCION DE UNA PLATAFORMA NUEVA "ELKARTZEN"

La base de esta plataforma es la defensa de los derechos humanos. Alrededor de los derechos humanos se da un amplio abanico de problemas, que podemos centrarlo en tres ejes: el

derecho al trabajo; la distribución del trabajo y la dignidad del trabajo. Como referencia se ha tomado: el salario social y vivienda para todos.

PARTIKULARTASUNA

En los últimos años, los puestos de trabajo que han surgido, se han hecho de forma que han quedado fuera de esta opción muchos marginados. Hay que reconocer además que el empleo ha sido escaso, con sueldos muy pequeños y con malas condiciones de trabajo. Muchos trabajadores han sido expulsados de las empresas" porque antes de que acabasen el contrato, la empresa ha cambiado de nombre y luego contrata nuevos trabajadores, los contratos fijos no existen.

La pobreza y la marginación social se da por doquier, a este problema se añade otro: la llegada de los emigrantes. Por otra parte hay que reconocer que el mundo se nos está haciendo pequeño, pues al mismo tiempo los medios de comunicación nos dan noticia de la miseria de aquí y la de Serbia, por poner un ejemplo.

VISION CRISTIANA Y LINEAS DE ACTUACION

¿Cómo vemos los cristianos la llegada de los emigrantes? Vienen obligados por razones de trabajo y supervivencia, pero tienen todos los derechos que como persona humana les corresponde, no son "mano de obra". Ahora bien con ellos tenemos el problema, ¿cómo ayudarles a integrarse en la cultura y en el idioma de nuestro pueblo?

Nosotros vemos, es necesario que plataformas como la de ELKARTZEN se tienen que prodigar, tiene que haber iniciativas, para montar comedores, talleres ocupacionales, cursillos de formación profesional, etc. y hay que emplear iniciativas, para que se integren en la cultura de nuestro pueblo.

Debemos de tener los ojos abiertos a este problema, que cada vez va siendo más importante.

GOIERRIKO TALDEAK:

Globalizazioari buruz prestatutako txostenaren aipamenak... eta zati bat.

ABIAPUNTUA

1. Globalizazioa eta gure gizartearen moldaera.
 - 1.1. Duela 50 urteko moldaera orokorra.
 - 1.2. Boteretsuek eragindako aldaketa orokorra.
 - 1.3. Aldaketa bortitza.
 - 1.4. Aldaketa familiako eta lagun arteko harremanetan eta komunikazioan.
 - 1.5. Aldaketa lantegiko harremanetan.
 - 1.6. Aldaketa erosketak egiteko orduan
 - 1.7. Oro har pentsaera aldaketa handia.
 2. Globalizazioa eta gure arteko politika.
 - 2.1. Herria herriko jauntxoek mende.
 - 2.2. Herria mugitzen hasia.
 - 2.3. Franko hil ondoko amets handien gazi-geza.
 - 2.4. Labur esanda.
3. Globalizazioa eta gure arteko kultura.
 - 3.1. 36-ko euskal kultura suntsitu nahia.
 - 3.2. Euskal kulturaren berpiztea
 - 3.3. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko indar handiagoak.
 - 3.4. Euskarari eta euskal kulturari serioago ekin beharra
 - 3.5. Euskaldun kristauon jarrera euskarari buruz.
 4. Globalizazioa eta gure artean eman den aldaketaren sustraia.
5. Nolako globalizazioa sustatu behar dugun.

**GLOBALIZAZIOA, UNIBERTSALTASUNA ETA SINGULARTASUNA ETA
PARTIKULARTASUNA**

ABIAPUNTUA

Globalizazioa edo unibertsaltasuna, joera denez, ez da gaur eguneko fenomeno: botere-nahia eta diru-gosea gizakiaren grina diren momentutik ageri den joera da; adibidez, hor dauzkagu historian zehar izandako Erromatar inperioa, Espainiaren inperialismoa, Britainia Handiaren inperialismo etab. Betidanik defendatu izan dira, halere, neurri handiagoan ala txikiagoan, singularitasuna (pertsona bakoitzaren nortasuna) eta partikularitasuna (taldearen, herriaren... nortasuna); hor dauzkagu, esaterako, historian zehar agertu izan diren pertsonaren aldeko mugimenduak (giza eskubideak), antzinako URSSen agintepeko herrien emantzipazioa, antzinako Jugoslaviako herrien emantzipazioa etab.

Bestalde, kristautasuna gizon-emakume guztion arteko senidetasuna hots egiten hasi zenetik ere, helburu bezala agertu izan da globalizazioa edo unibertsaltasuna, singularitasuna eta partikularitasuna ukatu gabe, ordea, nahiz eta orekari eustea lortu ez den sekula, azken bi hauen kalterako. Esaterako, oreka-ezaren adibide onak izan dira Asiako elizan Erromako elizaren kontra liturgiaren inkulturaziorako egindako ahaleginak eta borrokak, hainbat mendetan elizetako hizkuntza latina izana etab.

Segidan datozen lerrotan, aipatu joerak eta horien ondorioak, maila abstraktuan eta orokorrean tratatu orde, idazki honen egileen bizitzaldiaren eta bizi-ingurumenaren inguruan aztertuko ditugu, hau da, azken 60/70 urte inguruan eta Gipuzkoako Tolosalde eta Goierri inguruan; halere, uste dugu, neurri handian Gipuzkoa osoa eta, are, Euskal Herri osoa islatuko dituela gure lan honek.

Hasteko, esan behar dugu, ez gaudela globalizazioaren eta unibertsaltasunaren kontra. Globalizazioak baditu bere alde on eta baikorrak, eta horiek bilatzen saiatu beharko genuke. Baina kontuan izan behar dugu, izatez alde txarrak ere badituela, eta horiek salatzen eta zuzentzen ahalegindu beharko genuke.

Globalizazioa eta unibertsaltasuna esatean, ezin gintezke mugatu izatez mundu guztira zabaltzen den fenomenora; ezin muga gintezke gaur egun izatez, komunikabideak direla medio, mundu guztia bere baitan harrapatzen duen fenomeno ezagunera. Globalizaziotzat joko dugu, izatez globala izan gabe ere, globalizazio-joera eta jarrera duen mugimendu oro: pertsona, taldeak, elkarteak, komunitateak, herriak... irentsi eta suntsitu nahia, inperialismoa, kolonialismoa etab. Ildo horri jarraituko gatzazkio lerro hauetan, eta zentzu horretan hartuko ditugu globalizazio eta unibertsaltasun terminoak. Eta horren kontrako jarreratzat hartuko ditugu singularitasuna eta partikularitasuna. Baina, esana dugunez, unibertsaltasunari, irekitasunari uko egin gabe; hain zuzen ere, singularitasuna eta partikularitasuna azpimarratzen baditugu, mundu osoari begira zerbait izan eta egin nahi dugulako da: zerbait, norbait garen neurrian izan gintezke unibertsal.

1. Globalizazioa eta gure gizartearen moldaera

1.1. Duela 50 urteko moldaera orokorra

Esan genezake, duela 50 urte gure herritarren pentsaera eta jokamoldea nola-halako gizatasunean eta kristautasunean zeudela oinarrituta gu bizi ginen herri txiki eta nekazaritzakoetan: seme-alaba ugari, familia handiak baina baliabide gutxikoak, bere etxea zuen lantokia jenderik gehienak ezkondu arte, geure hizkuntzan analfabetoak ginen eta ezarritakoan ere halatsu, erlijioak eragin handia zuen (mezetara joaten ez zena gaizki ikusia izateraino), euskara debekatua zegoen eremu askotan eta ahoz aho bakarrik transmititu ohi zen, Francoren diktadurapeko beldurra eta izua ziren nagusi, pentsaera eta ohitura berdintsuak ingurumen guztian eta kanpokoekin harreman gutxi...

1.2. Boteretsuek eragindako aldaketa orokorra

Gero, boteretsuen trikimailuek biziera hura erabat aldatzea ekarri zuen. Industrializazioa indartu zen; neurririk gabeko, kontrolik eta baldintzarik gabeko inmigrazioa hasi zen Espainia osotik Euskal Herrira; jende-pilaketa izan zuen ondorioa, denbora gutxian bikoiztu egin zen jende-kopurua; ordu askoren poderioz eta baldintza txarretan izanik ere diru-mordoska ikusten hasi

zen jendea; kultura, hizkuntza eta ohitura diferentetako jendea pilatu zen; ez zen inolako integrazioerik sortu, bertako askoren eta etorkinen eta bertako batzuen artean etsaigoa bezalakoa nabari zen: abertzaleak eta espainol nazionalistak; sekularizazioa etorri zen.

1.3. Aldaketa bortitza

Horrela, urtetan tinko iraunak ziren gure giza oinarriak aldatzen hasi ziren; lehenago historian behin ere izan ez zuten indarrez aldatu ere. Ez dugu esan nahi lehenago gure artean paradisuako biziera bizi genuenik, baizik eta behin ere ez bezalako indarrez hartu zuela guztiak okerrerako, deshumanizaziorako, joera. Diru-gosea nagusitu zen, bai bertakoen, bai etorkinen artean. Langileen mailan ere lehenengoa izan nahia nagusitzen da, beste guztiak zapalduz lortuko bada ere; ahal duenak ahal duena egitea da kontua; solidaritatea bost axola; langileen seme-alaba ikasiak ugazaben eta sistemaren neskame-morroï zintzo dira gehienetan. Lurraren salmenta, etxebizitzaren alokairu eta sukalde-eskubidea eguneroko ogi bihurtu ziren. Familia handiak eta batuak gainbehera egin zuen; familiako bizitza hautsiz zihoan; seme-alabarik ekartzeko ez zegoen astirik, dirurik eta egokierarik. Euskara arrisku bizardan ikusi genuen. Jendeak ikasketak egitera jotzen du inolako oreka-irizpiderik gabe, lanbide hobeak eta irabazpide hobeak eskaintzen zituztelako. Produktibitatea eta konpetentzia nagusitzen dira. Emakumea ere lantokira eta unibertsitatera bideratzen hasten da samaldan, baldintza txarretan bada ere. Gure burua eta pentsaera aldatuz doaz, zertara goazen kontuan hartu gabe; erosotasuna amesten da: luxuzko etxebizitza, auto bat edo bi... ezinbestekotzat jotzen dira lanera joateko nahiz turismorako. Erlijio-biziera atzerakoitzat eta ezjakinen arazotzat jotzen da: ez dago geroan sinetsi beharrik, gaur gaurkoa bizi behar da eta kito; zerua lurrean dago eta hori lortzeko dirua, boterea, gauza asko eskura izatea eta gozatzea da kontua; hildakoan kito, bukatu da dena. Konturatu gabe, kasik, dena hankaz gora jartzen ari zaigu: gure ohiturak, bai jatekoak, bai janztekoak, bai jolas egitekoak, harremanak etab.

1.4. Aldaketa familiako eta lagun arteko harremanetan eta komunikazioan

Oso nabarmena da etxeko eta lagun arteko komunikazioari eta laguntzari buruzko bizitzan gertatu den aldaketa, ez onerako noski, txarrerako baizik. Adibidez:

- lehen, modu batera nahiz bestera, elkarriketa izaten zen familian; otordu-garaia elkarrekin hitz egiteko une egokia izan ohi zen; gaur egun telebistak agintzen du;

- lehen, auzoan norbait beharrezan ikusiz gero, auzo-lana ohitura zen, eta, auzo-lana ez zenean, lagundu egiten zitzaion beharrezan zegoenari; gaurko jendeak auzo-lan terminoak zer esan nahi duen ere ez daki;

- lehen, mendira joatean, gauza arrunta zen topo egindako jendearekin hitz aspertu bat egitea, elkar ezagutu ez arren; gaur, gauza handia izaten da agur hutsa egitea ere.

- lehen, herri txikietan kasik irten gabe bizi ginen eta, irteten ginean, autobusean ibiltzen ginen, hau da, beti elkarrekin; gaur nork bere autoa behar du, eta autoan zarata gertatzen den musika, harreman oro galarazten duen zarata.

Gaur komunikazio- eta harreman-modu hauek guztiak, esateko, galdu egin dira; deshumanizatu egin dira neurri handian gure erlazioak.

1.5. Aldaketa lantegiko harremanetan

Lantegian, lehen, elkartasun handiagoa bizi zuten langileek. Zerbait errebindikatu behar zenean, bilerak egiten ziren. Ugazaben aurrean, indarra zuten bilera haiek. Jarrera hau asko moteldu da orain. Langileak isolaturik eta makinaren martxara jarriak bizi dira.

1.6. Aldaketak erosketak egiteko orduan

Erosketak, lehen, herriko denda txikietan egiten ziren; harreman pertsonalak ziren nagusi. Gaur egun, zentro handietara jotzen du jendeak; anonimatua da nagusi.

1.7. Oro har pentsaera-aldaketa handia

Labur esanda, balioen munduan aldaketa handiak nabari dira, beti ere sistema deshumanizatzailearen ondorio direnak:

- konprometitu nahi ez izatea; bizitzako arlo guztietan egiten zaio ihes konpromisoari;
- bikoteen arteko harremanetan ere behin-behinekotasuna edo probisionaltasuna bizi ohi da: atsegin zaigun artean ongi, bestela utzi eta kito;
- geure buruaren grinekiko inolako galgarik edo frenorik eza;
- nork bere burua garatzea baino gehiago, gauzez inguratzea bilatzen da: kontsumismoa;
- nork bere burua garatzeko beharrezko liratekeen oinarriekiko ardurarik eza: norberaren hizkuntza, familia eta ohitura bost axola; euskararen ordezkari ingelesa nahiago, jolaserako atzerriko ohiturak nahiago; etxea ostatu eta ez familiako harremanetarako.

Hitz batean, alienazioa.

2. **Globalizazioa eta gure arteko politika.**

2.1. *Herria herriko jauntxoaren mende*

Francoren diktadurapean, lehen urteetan bederen, herriko jendea politikatik (parlamentutik, diputaziotik, udaletik) bazterturik gertatu zen gure artean: militarren, botereari atxikitako dirudunen eta herriko jauntxoaren zeregina zen politikagintza guztia, diktadurari atxikia zen jendearena.

36ko gerratearen ondoren erbestera joan behar izan zuten politikoei indarrean jarraitu zuten han nola edo hala, baina herria ia inolako eraginik izan gabe.

2.2. *Herria mugitzen hasia*

Pixkana eta diktadurapeko lehen aldiko beldurra eta izua arindu ahala, jende asko mugitzen hasi zen Euskal Herrian.

50. hamarkadaren azken aldera ETA sortu zen, herri-eskubideak errebindikatzeko. Eta herrian ere, lehengoz gainera, beste mugimendu batzuk sortzen dira; adibidez, udaletan herri-mailako zinegotziak sartzen hasten dira.

2.3. *Franco hil ondoko amets handien gazi-geza*

Franco hiltzean, bizkortu egin zen burujabetasunaren ametsa. Baina guztia Konstituzio Espainolarekin, Gernikako Estatutuarekin eta Nafarroako Amejoramentuarekin bukatu zen. Okerrena, Euskal Herria hiru zatitan banatua ikustea izan zen: Nafarroa alde batetik, Euskal Autonomi Elkargoa bestetik eta Ipar Euskal Herria bere aldetik; herritar asko eta askoren ametsa ezerezean-edo utzi zuen zatiketa horrek (egia esan, Frantziako eta Espainiako inperioek aspalditik ezarria ziguten banaketa zen).

Euskal Herriak, horrela, zatiturik jarraitzen du, bai lurraldetasunean, bai talde politikoaren artean (hauek ezartzen diote, azken batean, herritarrei beren arteko zatiketa, boterearen, ekonomiaren eta komunikabideen laguntzarekin). Horri guztiari, alderdi politiko espainolistak eta abertzaleak izatea gehitu behar zaio; abertzale izenekoaren artean ere PNV/EAren eta Batasunaren arteko etsaigoa azpimarratu behar da.

ETAk, berriz, bereari eusten dio herriko gehiengoaren kontra.

Ez da hor bukatzen, ordea, guztia. Europa Batua delakoa ere hor dago; funtsean, Europa ekonomikoa dena: diruarena eta boterearena; kapitalak eta multinazionalak libre jokatu ahal dezaten sortua.

Langileen artean ere azpimarratzekoa da sindikatu espainolisten eta abertzaleen arteko zatiketa. Eta, egitura espainola eta europarra direla bide, geroz eta indar gutxiago dute sindikatuek eta langile-mugimenduek.

Bestalde, eta adibidez, Euskal Autonomi Elkargoak bere kompetentziak badituela esaten digute. Baina ordua etortzen denean, dena Madrilen eskumende dagoela ikusten da. Adibide ona da duela gutxi, 2001. urtearen bukaeran eta 2002. urtearen hasieran, kupoarekin gertatu dena.

Herrian, bitartean, bada oraindik euskal senik, boterea bere baliabide guztiez, batez ere berak gidatutako komunikabideez, sen hau desegiten saiatzen bada ere: herriak, neurri handian, bere

buruaren jabe izan nahi du, bai hizkuntzari eta kulturari, bai ekonomiari eta politikari dagokienez. Etorkin asko eta bertako zenbait (boterearen menpeko itsuak) ez datoz bat abertzaleekin, aurka daude. Baina, beste behin ere, boterearen indarra (ekonomikoa, politikoa, komunikabideena...) da egoera horren eragilea.

2.4. Labar esanda

- Madrileko gobernuaren helburua ez da ETA suntsitzea, Euskal Herria desagitea baizik: euskara, euskal kultura, euskal nortasuna desagitea; Euskal Herria gauza amorfo bihurtzea.

- Horren adibide dira hainbat eta hainbat errepresio-forma: Mahai Nazionala espetxeratzea, EGIN ixtea, Jarrai, Segi, AABB ilegalizatzea; BATASUNA ilegalizatu nahia.

- Alde bietan -abertzaleen eta espainolisten artean-, sekulako sutrimenak: mehatxuak, hilketak, presoak, presoen familiarrak (presoen sakabanaketa dela eta, bideetan familiarren istripuak, 11 hildako, preso familiarrak bisitatzeko milaka eta milaka km egin beharra).

- Honen guztiaren aurrean zer egiten dute politikoei, intelektualei, komunikabideei, Elizak? Isiltasuna, beste aldera begiratzea, ez ikusia...

Horiek horrela, alderdi politikoei ez zaie sinesten: beti herria ahotan, baina bakoitzak bere interesak ditu zaintzen. Elizak gero eta eragin gutxiago; ez da aintzat hartzen.

- Zer egin dezakegu/ behar dugu Euskal Herriko kristauok? Begiak ireki, egoeraren kausak aztertu, soluziorako urrasbideak bilatu, urratu, saiatu.

3. Globalizazioa eta gure arteko kultura

3.1. 36ko euskal kultura suntsitu nahia

Frankismoak erabat suntsitu nahi izan zuen euskal kultura; tartean euskara: 36ko gerra aurreko kultur mugimendu guztia edo ia guztia (atzerrira joan behar izan zuten kultur gizakiek han jarraitu zuten beren lana neurri batean) geldiarazi zuen frankismoaren etorrerak.

3.2. Euskal kulturaren berpiztea

Halere, frankismoaren lehen urtetan indarrean jarraitu zuen euskarak ahoz ahozko mailan. 50. hamarkadan, ordea, gazte-sail bat euskal kulturari arnasa eman nahian hasi zen indar handiz. ETA mugimenduak berak ere asko eragin zion euskarari hasiera batean. Frankismoaren hasieratik klandestinitatean eta txoko bakan batzuetan bizirik egon zen ikastola indar handia hartzen hasi zen geroxeago; gure kulturaren eta gure hizkuntzaren babesleku izan zen ikastola. Aipatua dugun inmigrazioak arriskua handiagotu egin zuen euskal kulturarentzat eta euskararentzat. Arrisku horrek eragin handia eman zien ikastolari eta helduen alfabetatze eta euskalduntze mugimenduari. Literaturan ere urrats handiak egin ziren.

Halere, zentralismoa, boterea, ekonomia eta komunikabide gidatuak direla eta, gure nortasun kulturala eta hizkuntza gainbehera zihoazela ikusten zen; arrisku handian zeuden.

3.4. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko indar handiagoak

"Demokrazia" etorri zela eta, indar handiagok ekin zitzaion euskara eta euskal kultura sustatzeari.

Badira, gure artean, zorionez aipatu dugun aurkako joera horren kontrako mugimenduak: Ikastola, Euskal Herrian Euskaraz, HABE, Egunkaria, telebista, irratiak eta beste hainbat eta hainbat erakunde. Aurrerapen handiak egin dira literaturan eta irakaskuntzan. Jende asko ari da euskara ikasten.

Hori guztia ez da aski. Etsai handien aurrean ahalegin handiak egin behar.

3.5. Euskarari eta euskal kulturari serioago ekin beharra

Baina, oraindik ere, ezinezkoa da gure herrietan euskaraz bizitzea. Oraindik ere espainola da beharrezkoa; euskara, berriz, nahi duenak ikasten du. Euskal Autonomi Elkartearen bertan ere nekez bizi daiteke euskaraz. Nafarroan atzera pauso handiak ematen ari dira Gobernuak eraginda; bertan

bizi diren 100.000 euskaldunek nekez bizi daitezke euskaraz; askoz gutxiago euskaldundu daitezke euskara ikasi nahi dutenak. Zer esanik ez Ipar Euskal herrian.

Irakaskuntzan eta heziketan (Unibertsitatea barne) gure kompetentziak baditugula esango digute. Baina, funtsean, dena Madriletik zuzendua dagoela ikusten dugu; han egiten dituzte legeak (adibidez, PPK esku artean darabil irakaskuntzarako lege berria, hainbat eta hainbat manifestazio eragiten ari dena).

Hizkuntza gutxituak (tartean euskara) horixe dira: gutxituak; sustatu edo promozionatu ordez, oztopoak jartzen zaizkie. Badakigu, bestalde, munduko soziologo handienek esanda, gutxiengoaren hizkuntzak nekez bizi daitezkeela, nekez iraun dezaketela norberaren indar politiko sendorik gabe. Ingelesa promozionatu behar omen da; honek balio baitigu mundu guztian jarduteko.

Konturatu gabe, kultura guztia nahi digu aldatu botereak, eta neurri handian ari da lortzen bere helburua: gure ohiturak, janzteko era, kirola, harremanak, musika (nabarmen-nabarmena da musika ingelesa gure artean hartzen ari den indarra).

Euskarari dagokionez, egia da, ezagutza-mailan aurrerapen handiak egin dira. Baina erabilera da arazoa. Euskararen etorkizuna segurtatzeko nahitaezkoa da euskaldunon motibazioa eta erabilera optimizatzea. Ez da aski borondate hutsa, ordea; beharra sortu behar da. Esaterako, 2002ko otsailaren 20ko Egunkarian, hau zioen Ikastolen Elkarteko Lehendakariak, Antonio Camposek: "Asko hitz egiten dugu euskararen normalizazioaz eta gai horren inguruan egin behar diren ahaleginez: borondatezko ahalegina izan behar duela esaten dugu eta inolaz ere ezin daitekeela inor honetara edo hartara behartu. Baina nik kontrakoa aldarrikatu nahi dut, hau da, euskararen erabileraren alde askoz ere erradikalago, irmoago eta zorrotzago jokatu behar dugula". Jende asko eskandalizatu egiten da "behartu" hitza entzutean. Baina ez dugu kontuan hartzen sofisma hutsa dela hori. Eskandalizatzen diren horiek ez dira batere eskandalizatzen euskaraz bizi nahi dugunok espainolez bizitzera "behartuak" gaudela ikustean; nola behartzen gaituzten? Bilera batean, tabernan, nonahi erdaldun bat inguratzen zaigunean; botereak eragindako komunikabide indartsuak ezartzen zaizkigunean; administrazioan erdara ezinbesteko gertatzen zaigunean; elizan erdara ezartzen zaigunean, etab. etab.

3.6. Euskaldun kristauon jarrera euskarari buruz

Munduan sei mila hizkuntza omen daude gutxi gorabehera. Horietatik hiru mila galtzeko zorian omen daude; UNESCOren iritziz, horietako bat da euskara.

Horrek zerbait esan beharko liguke Euskal Herriko kristauoi. Hizkuntzak ez daude galtzeko zorian berez galdu beharrekoak direlako. Botereak, globalizazioak galtzeko bidean nahi ditu. Hizkuntza galtzean hitzunen elkarrekin nozitzen du bere nortasunean; hizkuntza ez da, izan ere, gauza abstraktua, komunitate baten adierazpidea baizik. Euskara galduz gero, euskaldunok geure nortasuna galduko genuke. Gure sustraiak galduko genituzke. Eskubidea osoa dugu Euskal Herrian bizi diren erdaldunek laguntza eman diezaguten.

4. Globalizazioa eta gure artean eman den aldaketaren sustraia

Aipatu ditugun aldaketa hauek guztiak ez dira gertatu beren kasa; balio, ohitura, pentsaera berri hauek guztiak sistemaren ume dira: geure kulturari bortizki erasotzen dio sistema horrek kultura zabalago eta irekiago baten izenean, baina, egiaz, boterearen interesen alde. Horrela, indibidualismoa (pertsonarik eza, intsolidaritatea, bakoitzasuna...), nortasunik eza (maila pertsonalean eta talde-, elkarre-, komunitate-, herri-mailan), moralik eza, itxura baloratzea, lehiakortasuna (konpetibitatea), utopiarik eza... eragiten dira; botereari kontra jar dakioken guztia suntsitzen da. Planteamendu zeharo materiala eta bakoitzarenari eta unean unekoari bakarrik begiratzen diona aireratzen da lau haizeetara. Gizakia maniki bihurtzea du helburu sistemak, noranahi eramana izango dena, dena eginda hartuko duena (ez, noski, komeni zaiona).

5. Nolako globalizazioa sustatu behar dugun

Beraz, globalizazioaz zer esan?

Aberatsen, boterearen interes ekonomikoetan oinarritutako globalizaziorik ez. Denoi berdin pentsarazi nahi digun globalizaziorik ez.

Mundu guztiarekin elkartasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutakoari, bai. Norberaren, talde bakoitzaren, elkarte bakoitzaren, herri bakoitzaren nortasuna errespetatzen eta sustatzen duen globalizazioari, bai. Modu dialektikoan bizi diren globalizazio/unibertsaltasunari eta singularitasun/partikularitasunari, bai. Hona Aureli Argemisen deklarazio bikain bat: "Yo soy europeo a partir de mi identidad personal y en relación al colectivo con el cual me siento identificado dentro de Europa... Mi manera de ser europeo es ser yo mismo en ese conjunto humano que se llama sociedad europea o Europa de todos". Gizabanakoaren duintasuna, herri guztien errekonozimendua, herri guztien arteko elkartasuna sustatzen dituen unibertsaltasunari, bai.

Euskal Herriko kristauok unibertsalak izan behar dugu. Gure unibertsaltasuna gizon-emakumeon senidetasunean oinarritu behar dugu; Jainkoaren kreazioz eta Kristoren salbazioaz guztiok senide gara. Munduko aberastasunak guztiontzat direla aldarrikatu behar dugu.

Era berean, ordea, munduko izaki guztiei (pertsonei, animaliei, izaki bizigabeei, taldeei, elkartei, komunitatei, herriei...) beren nortasuna aitortu behar diegu. Giza eskubideek, teologiak, ekologiak eskatzen digute hori guztia.

Herri txikiei nahiz handiei, guztiei zor zaie beren errespetua; are gehiago txikiei, Kristok pobreenen aldeko jarrera hots egin eta erakutsi digunetik.

Nork bere burua, bere herria, bere elkarte, bere komunitatea, bere ingurumena... estimatzeak ekarriko du besteenak benetan estimatzea. Baina gogoan izan behar dugu historiako gorabeherak indarrez ezarri dizkiguten mugak (ohiturak galtzea, pentsaera arrotzean murgiltzea, hizkuntza galtzea etab) ikusi, aztertu eta gainditzen saiatu beharra dakarkigula horrek guztiak; ez du balio hau esateak: hau da gaur egungo gure egoera; baizik eta beste honek izan behar du gure jarrera: zein da gure bizieraren oinarri-oinarrian, azpi-azpian - errautsaren azpian sugarra bezala - oraino bizirik dagoen printzak argitara ekartzeko eskatzen digun bizimoldea (ohiturak, pentsaera, hizkuntza, erlijioa etab.); azken batean, zein da kendu diguten nortasun-zatia?

Unibertsala eta zabala izateko, nork bere nortasuna (maila pertsonalekoa nahiz komunitariokoa) gorde, zaindu eta, behar izanez gero, berreskuratu egin behar du. Horrela bakarrik errespetu eta errekonoziti daiteke besteena. Norberaren (pertsonearen nahiz taldearen) berezitasun eta ezaugarri kulturalak ari gara eta ez, inolaz ere, arrazarenez.

Jesus ere pertsona konkretua izan zen, Belenen jaioa, Joseren semea, Nazarethen bizi eta hazi zen eta han egin zuen lan. Judua izan zen, bere herria irrikaz maite zuen, bere hizkuntza propioa zuen, bere herri propioan hasi eta predikatu zuen bere salbamen-ekintza. Herri horretatik abiatuz hedarazi zuen salbazioa. "Jendeak normalean aramaieraz egiten zuen Israelen. Jesusek ere bai. Edonork bezala bere sustraietan itsatsia darama hizkuntza: aramaieraz ikasi zuen amagandik, aramaieraz hitz egiten zion herriari eta aramaieraz Jainkoari" (Jose Arregi, Nazareteko Jesus, Deustuko Unibertsitatea).

"Gure sustraiak herrian, familian, hizkuntzan, haurtzaroan... ditugun erroek markatuak gauzkate jaio ginenetik. Eta haren sustraiak gure giza begiramen eta fede-begiramen osoa merezi dute".

Azken batean, hau da galdera: zein globalizazio nahi dugu? Gaur egun munduan garatzen ari dena? Besteak beste, milioika eta milioika miserian uzten ari den globalizazioa, hiru mila hizkuntza (tartean euskara) inolako eskrupulurik gabe galtzeko zorian jartzen ari dena? Ala, munduko bazter asko eta askotan, aipatu globalizazio horren kontra, pertsonaren eta herrien eskubideak errebindikatzen eta defendatzen ari diren mugimendu zabalena? Euskal Herriko kristauok ezin egin diogu ezikusia arazo handi horri. Ezin bizi gara munduan bakarrik bizi bagina bezala, uharte bat bagina bezala; baina mundu zabal horretan, gure irekitasuna eta guzti, geure erroei atxiki behar gaitzaizkie, munduari begira ezer izan eta egin nahi badugu.

2. atala: Koordinakundeen ahotsa

ILEGALIZACION DE PARTIDOS POLÍTICOS

Los ciudadanos que pertenecemos a **Comunidades Cristianas Populares del Estado Español** estamos sumamente preocupados con la Ley de Partidos Políticos enviada por el Gobierno para su estudio al Consejo General del Poder Judicial. Queremos hacer partícipes a los demás ciudadanos de los motivos de nuestra preocupación.

Existe ya una Ley de Partidos Políticos ampliamente consensuada con la que hemos funcionado hasta el momento. El Gobierno elabora una nueva ley cuya finalidad no es reordenar la normativa sobre Partidos, sino simple y llanamente ilegalizar a Batasuna.

La tradición jurídica de este país, en tiempos de democracia y en tiempos de dictadura, nos muestra que ante la violencia de alguna manera ligada a grupos legales, se han promulgado leyes específicas. La primera fue la ley de 10 de noviembre de 1871, por la que las Cortes ilegalizan a la Asociación Internacional de Trabajadores, AIT, Primera Internacional; la Segunda República aprobó en tiempos de Azaña la Ley de Defensa de la República, contra los anarquistas; en el Régimen de Franco, la Ley de Represión de la Masonería y el Comunismo y las múltiples leyes de Orden Público de Bandidaje y de Terrorismo.

El Gobierno actual presenta una Ley de Partidos Políticos que coincide con este tipo de leyes, al menos en tres aspectos:

1. La constitución de un Tribunal Especial que entienda de estos delitos sustrayéndolos a la jurisdicción ordinaria. Esto es común a todas las leyes antiterroristas, incluso en Estados Unidos, donde se han constituido tribunales militares.
2. La inespecificidad y generalidad de los delitos o conductas punibles. En la Ley que nos ocupa son causa de ilegalización delitos tan etéreos como:
 - “Fomentar o propiciar el odio”
 - “Fomentar o propiciar la violencia”
 - Fomentar o propiciar la confrontación social como método para la consecución de objetivos políticos”.
 - “Cuando persiga deteriorar... el régimen de libertades”
 - Complementar la acción de organizaciones terroristas “para obtener beneficio político de la actuación de la red terrorista”.
 - Dar “programas o actuaciones que fomenten una cultura de enfrentamiento y confrontación civil”
 - “Impugnación generalizada de la legalidad aun cuando utilicen medios democráticos...”
3. Amplísima discrecionalidad de los jueces que deben determinar, por ejemplo, a qué grado debe llegar la propiciación del odio o la confrontación social o la cultura de enfrentamiento o la impugnación de la legalidad por medios democráticos para que pueda ser causa de ilegalización. Pensamos que el motivo de crear tribunales especiales o militares es asegurar que esta ley se aplique conforme a las intenciones del legislador. Basta que el Tribunal aprecie “indicios de defraudar” para ilegalizar un partido creado en fecha anterior o posterior a la ley.

Se trata de una Ley de Partidos Políticos a la que están sometidos todos los Partidos. Como puede fácilmente apreciarse, un partido político que propicie una huelga de las llamadas salvajes o con piquetes, puede ser ilegalizado por “propiciar la confrontación social como método para la consecución de objetivos políticos”. Del PNV se ha dicho y repetido (personalizándolo en Arzallus) que propicia el odio y que obtiene beneficios políticos de la acción terrorista... Berlusconi pretende aplicar la ley antiterrorista a los movimientos antiglobalización...

Queremos decir que, con esta ley en la mano, si cambian un poco las circunstancias, pueden encontrarse cincuenta diputados que pidan la ilegalización de cualquier partido.

Los ciudadanos que pertenecemos a Comunidades Cristianas Populares que hemos optado siempre por la izquierda y por los movimientos alternativos, ahora mal llamados antiglobalización,

mostramos nuestra preocupación por una Ley de Partidos Políticos que debería llamarse “Ley para la Ilegalización de Partidos Políticos”. Opinamos que no debe haber leyes especiales para la ilegalización de los Partidos Políticos, ni de los Sindicatos, ni de las ONGS, ni de las Asociaciones Ciudadanas de cualquier tipo. Basta con las leyes civiles y penales existentes y con los jueces ordinarios para combatir el crimen y, si no basta, demos leyes generales que lo combatan. Nos parece peligrosísima una Ley que posibilita a un Tribunal Especial disolver un Partido porque “fomenta el odio”, “propicia la confrontación social”, “impugna generalizadamente la legalidad por medios democráticos” u “obtiene beneficios políticos de la acción terrorista”. A los más viejos nos recuerda demasiado la Ley de Orden Público de 1959 que nos aplicaba Mariscal de Gante, padre, y nos gustaría saber si en la redacción de esta Ley ha intervenido alguno de los que elaboró la de 1959.

Nos oponemos radicalmente a esta Ley y pedimos a los Partidos Políticos que nos representan en las Cortes que se opongan a ella, sobre todo a los partidos que dentro de un tiempo más corto que largo pueden encontrar cincuenta diputados que les lleven al Tribunal Especial por “propiciar la confrontación social” o “impugnar generalizadamente la legalidad” “por medios democráticos”.

Comunidades Cristianas Populares del Estado
14 de abril de 2002